

## GURE ENPRESAREN KOMUNIKAZIO-KANALAK

### 1. KOMUNIKAZIO KANALAK

Badakigu bezeroek gurekin komunikazio erraza izatea ezinbestekoa dela, eta horretarako, lantokiko e-mail bat sortuko dugu, bezeroak guri kontaktatu ahal izateko eta alderantziz (adibidez, enkargu bat bidean badago edota iritsi bada, edo haiek guretzat galderaren bat badaukate). Gainera, gure web orrian edozein arazo salatzeko eta eskaerak egiteko atal bat jarriko dugu. Azkenik, bezeroak dendetara etorri daitezke edozein gauzarako.

Gure produktuak ezagutarazteko, gure lehenengo bezero segmentuak, gurasoek, balio proposamenera iristeko, gure inguruko jendearen artean zabalduko genuke informazioa eta telebistan publizitatea jarriko genuke. Bestalde, gure bigarren bezero segmentuari, gazteei, sare sozialen bitartez informazioa zabaltzen saiatuko genuke (Instagram, TikTok) , haiek gure dendan erosi ahal izateko.



Bezeroa posta elektronikoz, sare sozialen bidez edo telefono bidez jar daiteke harremanetan enpresarekin. Komunikazioa errazteko, gehien erabiltzen diren sare sozialetan kontu bat sortuko dugu (adibidez, TikTok eta Instagram); gure produktuak erakustez gain, gurekin komunikatzeko edo zalantzaren bat galdetzeko erabiliko dituzte.



### 2. BANAKETA KANALAK



Denda fisikora etortzen badira erostera, haiek aukeratuko dute gustoko duten arropa, eta guk saltzaileak edukiko ditugu geure dendan, produktua tokian bertan bezeroari salduko diotenak. On-line erosten badute, aldiz, gure webgunetik aukeratuko dituzte gustoko dituzten produktuak, eta ostean,

Correos konpainiatik bidaliko ditugu enkarguak Espainia osora. InPost zerbitzua ere edukiko dugu produktua beste herrialde batera iritsi behar bada. Konpainia hauek produktua erosle bakoitzaren etxera eraman dezake, edota jasoketa puntu batean utzi.



Pertsonalizazioa bi kanaletan eskuragarri edukiko dute; dendan, saltzailea ez den beste pertsona bat egongo da kontagailuan, enkargu hauek jasotzeko; on-line dendan, aldiz, toki espezifiko bat egongo da webgunean non pertsonalizazioa eskatu dezaketen. Honek daukan zerga berdina izango da bai dendan eskatzean bai webgunean eskatzean. Aholkularitza zerbitzua, aldiz, soilik denda fisikoan dago.


### 3. SALMENTA KANALAK

Gure bezeroengana iristeko denda fisikoa eta webgune bat erabiliko dugu. Denda fisikoa Donostiatik gertu bizi direnentzat izango da, eta webgunea, aldiz, Espainiako beste tokietan bizi direnentzat. Bestalde, sare sozialak erabiliko ditugu gure negozioaren ideiak zabaltzeko, eta jende gehiagora iristeko. Denda fisikoan bezeroek arropa probatzeko aukera izango dute, baina dendan ez da egongo webgunean egongo den arropa guztia. Bestealdetik, webgunearen bidez, leku gehiagotara iristeko gaitasuna handitu nahi dugu, eta Espainiako toki desberdinetan bizi direnei erosteko aukera eman. Pertsonalizazioei dagokienez, bai denda fisikoan, bai webgunean eskaerak egiteko aukera izango dute gure bezeroek.



Denda fisikoa nahiko erdialdean kokatuta dagoen auzo batean ezarriko dugu, egunean zehar jende asko ibiltzen den auzo batean, errezagoa izango baita bezeroentzat leku horretara iristea (adibidez, Antiguon) Ez dugu hiriaren erdialdean jarriko, garestiagoa izango baita, eta hasieran ez dugu diru baliabide ekonomiko handirik izango.

Gure enpresari komeni zaion kanala denda fisikoa eta web-orri bat izatea da. Bezeroek web-orriaren bitartez eskaerak egin ahal izango dute, eta horrela, aldi berean, guk gure negozioa leku gehiagotara zabaltzea lortuko dugu. Bestalde, denda fisikoan, gurasoek errezago izango dute erostea, web-orrian erosteko arazoak izan dezaketelako.



Gainera, arropa fisikoki ikusi edo probatu nahi badute aukera izango dute gure denda fisikoan. Lehen aipatu bezala, pentsatu dugu Antiguon kokatzea gure denda

# BERRI-TU



fisikoa. 170m2-ko lokal bat aurkitu dugu, eta horrekin nahikoa dugu; erreformak behar baditu ere, toki oso ona iruditzen zaigu.

<https://www.idealista.com/inmueble/83624228/>